



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2017KO EKAINAREN 1EKO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2017.06.01.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Zinegotziak:  
Mentxu Peña Lizarazu and.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Katastroko aldatetari buruzko akordioa (4. poligonoko 2. eta 243. lur zatiak).
- 3.- Katastroko aldatetari buruzko akordioa (3. poligonoko 105. lur zatia).
- 4.-Mendiko lanen esleipena.
- 5.-Udalbiltza Partzuergoa: 2017ko kuota.
- 6.-2016ko kontuak: behin betiko onespena.
- 7.-Aurrekontu egonkortasunari buruzko Legea indargabetzeko mozioa.
- 8.-Ana Larretxea Apezetxea andrea: Goiko Karrikan mahaiak, aulkiak eta musika jartzeko baimen eskaera.
- 9.-Alkatearen ebazpenak.
- 10.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2017ko maiatzaren 3an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-KATASTROKO ALDAKETARI BURUZKO AKORDIOA (4. POLIGONOKO 2. ETA 243. LUR ZATIAK).**

Ikusirik katastroan egindako aldaketa (2016/1/24 zenbaki duena), 4. poligonoko 5. lurzatia bitan zatitzeko (Leon Fagoaga Zozaya jaunarekin sinatutako irazlaein hitzarmenaren

ondorioz) eta ondoko lurzatiaren mugak behar bezala jasotzeko planoetan (4. poligonoko 2, 5, 189, 199).

Ikusirik Nafarroako Gobernuak Herrilurren atalak igorritako txostena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako katastroko aldaketa onartzea.
- 2) Akordio hau Lur-Ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzura igortzea.

### **3.- KATASTROKO ALDAKETARI BURUZKO AKORDIOA (3. POLIGONOKO 105. LUR ZATIA).**

Ikusirik katastroa errealitatearekin bat etortzeko egindako aldaketa (2016/1/3 zenbaki duena), Larrechea Errandonea senideen borda behar bezala jasotzeko planoetan (4. poligonoko 105 B. lurzatiaren eta baja 4. poligonoko 84. lurzatiaren).

Ikusirik partikularrak ados daudela aldaketarekin.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako katastroko aldaketa onartzea.
- 2) Akordio hau Lur-Ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzura igortzea.

### **4.-MENDIKO LANEN ESLEIPENA.**

Ingurumen eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendari Nagusiak diru laguntza eman dio Udal honi, 132/2017 eta 134/2017 ebazpenen bidez, 2016-2017ko mendiko lanak burutzeko baimena eman du eta diru laguntza ere.

Ikusirik falta direla lan batzuk burutzeko: zerrakuren bilketa eta 3 pisten moldaketak,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako lanak egiteko aurrekontua eskatzea ondorengo enpresei, 2017ko ekainaren 30erako proposamenak aurkezteko: Berdabio Basogintza, Javier Alzugarai eskabazioak, Mikel Telletxea Juanena, Miguel Angel Oyarzabal Tellechea, Jesus M. Madariaga Vergara, Iñaki Taberna Iturria eta Peio Aguinaga Macicior.

### **5.-UDALBILTZA PARTZUERGOA: 2017KO KUOTA.**

Ikusirik Udalbiltza Partzuergoak igorritako idatzia, 2017ko kuota ekainaren 30a baino lehen ordaintzeko eskatuz (2.000,00 euro).

Kontuan hartuz 2017ko aurrekontuan badagoela partida horretarako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Udalbiltza Partzuergoari 2.000,00 euro ordaintzea berehala.

### **6.-2016KO KONTUAK: BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Arantzako Udalak, 2017ko martxoaren 3an egindako bileran, erabaki zuen 2016ko Kontu Orokorrei aldeko txostena ematea eta espedienteak 15 eguneko jendaurrean paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkezteko.

Ikusirik jendaurreko epean ez dela alegaziorik eta erreklamaziorik aurkeztu.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2016ko kontuen espedienteak behin betikoz onartzea.



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

2) 2016ko kontuen espedientea Nafarroako Gobernura bidaltzea.

### **7.-AURREKONTU EGONKORTASUNARI BURUZKO LEGEA INDARGABETZEKO MOZIOA.**

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak igorritako mozioa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko 2/2012 lege organikoa dela eta.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Madrilgo Gobernuak 2012ko apirilaren 12an onartu eta ezarri zuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoaren edukia errefusatzeari.

2) Espainiako Gobernua premiatzea aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko legea ahal denik eta azkarren indargabetzeko hartu beharreko neurriak urgentziaz har ditzan.

3) Herritarrei eduki honen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.

4) Akordio honen berri ematea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari eta Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioari.

### **8.-ANA LARRETxea APEZETxea ANDREA: GOIKO KARRIKAN MAHAIK, AULKIAK ETA MUSIKA JARTZEKO BAIMEN ESKAERA.**

Ikusirik Ana Larretxea Apezetxea andreak aurkeztutako idatzia, Goiko Karrikan, ekainaren erditik abuztu bukaera arte, mahaiak, aulkiak eta musika jartzeko baimena eskatuz.

Ikusirik indarrean dagoen bide publikoko eta herri lurretako zoru, hegaldura eta zorupeko probetxamendu berezien prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

Kontuan hartuz helburua espaloiak ez okupatzea dela, bizilagunei segurtasun leku bat ematea, eta ibilgailuak ibiltzeko arazorik ez izatea ere.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ana Larretxea Apezetxea andreak ekainaren 15etik, uztaile eta abuztuko hilabeteetan markatuko den aparkaleku batean mahaiak eta aulkiak jartzeko baimena ematea, indarrean dagoen ordenantzaren arabera dagokion prezio publikoa ordaintzeko baldintza pean (50 euro hileko eta mahai bakoitzeko). Halaber musika jartzeko baimena ematea, beti ere, soinuei buruz dauden neurriak betetzeko baldintza pean.

2) Eskatzaileari jakinaraztea baimena baldintzatua dagoela trafikoa ez oztopatzera, espaloia eta kalea beti libre uztera, bizilagunek eta ibilgailuek oztoporik izan ez dezaten ibiltzeko.

3) Eskatzaileari jakinaraztea espaloia ez okupatzea bere ardura eta kontrola dela; hori ez betetzea isuna ekarriko luke.

4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5) Ebazpen hau eskatzaileari jakinaraztea.

### **9.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 56. ebazpenetik 70. ebazpena arte.

**10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

